

- **HERRIKO KONTUAK Kultur Aniztasunaren Jaia** 05
- **HERRI KIROLAK Idoia txapeldun** 09
- **AIAKO BERRI Estetika zentroa** 10
- **IRITZIA Iñigo Fernandez** 18
- **MOILA BAZTERRETIK Garbiñe Manterola** 19
- **HERRITARRA Aurélie Luineau** 25



## Australia, Brasil eta Argentina **bistan**

Lau hilabeteko bidaiari leku eder asko eta tristetzeko miseriak ikusi ditu Aiako familia bateko kideek. Eskola berezia izan da lauentzat.

# Karkarako erredakzioan aritzeko langilea behar dugu



**Karkarak langile bat hartu nahi du, aldizkariaren lan taldean aritzeko. Interesa baduzu, aldizkariaren lokalera, kultur etxera, jo ezazu, lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta eskaintzen diren ordainsariak eta gainontzekoak ezagutzeko. Telefonoz ere hots egin dezakezu: 943 83 15 27. Izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.**

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Endim Gudarai Jaurea 13-15  
ORIO  
943 83 36 75

**AMILIBIA**  
ONTZIOLEAK, S. L.

Ipel partueen proiektu eta instalazioak  
guti mailako behaketa- eta arazo-entzakiak



Olesinaga auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**ARISTERRAZU**  
jatebxea



Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Automóviles ZARAUZ**

OTIDEN ZIBITZU FORD ALA

ISAGATI TARTAK  
HISIA JARDUN  
BEGI

ZARAUZ. Tel. 943 13 13 50

*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*jatebidea*



Murotarri Kalea, 2 - 171.013.83.28.00

**Kinkladenda- Ume arropa**

*argine*

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARJEN TXARTELAREKIN



# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Mikel Aranzabal, Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta  
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Nadeth Agirre, Maria Jesus  
Arruabarrena, Sidya Bodian, Iñigo  
Fernandez, Sarai Lizaso, Ane  
Mujika eta Antonio Zumeta**Laguntzaileak**

Garbiñe Manterola

**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Ekiñe Miralles eta  
Goiuri Unanue (Orio)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.300 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Kukuarriko gurutzeari

ANTONIO ZUMETA *TXANKA***1**

Maiatzaren azken iganden  
goazen Kukuarrira,  
lengo gure oitura zarrari  
eman zaiegun segida,  
gurutze ederra antxe daukagu  
gurre herriyai begira,  
inguru ontako mendigoizalek  
bertan bilduko baidira.

**2**

Gazte denboran gogoratuta  
pentsamenduak buruan,  
zenbait ibili egiña naizen  
Kukuarri inguruan,  
eskopeta zar bat bizkarren  
ta zakurra albuari,  
ni ainbat aldiz iyotakuak  
asko etziran orduan.

**3**

Kukuarrira iyo berdeu ta  
ortxe dakagu aukera,  
gazte ta zarrak animatuta  
goizetik ertean batera,  
gurutze onduan meza entzuteko  
izango degu aukera,  
meza ondoren abestu zagu  
kukuarekin batera.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Eusko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Masterra dela eta

Aurreko KARKARAN Mikel Izquierdok gure idatziari emandako erantzunaren aurrean, hainbat argibide eman nahi ditugu:

Arrazoi du janariaketa dietak ez zaizkiola ordainduko esaten duenean. Gure akatsa. Kirol teknikariaren lanpostua duela 4 legealdi EAKo eta Ezker Abertzaleko zinegotziek egindako proposamenaren ondorioz sortu zen. Postu horren beharra, ondoren azaltzen ditugun zereginetan arrazoi-tu genuen: bukatzeaz zegoen kiroldegiaren kudeaketa eredu proposatu eta haren ardurara eramatea, herriko kirol elkarte eta ikastetxeekin harreman iraunkorra izatea eta ekimenetan haiei laguntzea, eta herriko kirol jarduerak sustatzea.

Gaia eztabaidatu ondoren, teknikari lanpostua sortzea erabaki zuen Udalak. Gerora, zeregin horiez gain, gazteria arloaren ardura ere bere gain hartu du. Guzti hori ondo eramatea izan da gure helburu bakarra eta horretan nahikoa lan baduelakoan gaudede.

Arrauneko Teknikaritzako Zentroari buruz eta funtzionamenduan sortuko dituen beharrez ez dugu inolako informaziorik jaso, ezta eztabaidatu ere. Baina behar horiek lanpostu edo ardura berriak izanik, guztientzat berdintasuneko aukerak izatearen aldekoak gara, inolako lehenatasunik gabe.

Orain artean, guk dakigunez, Udala honetan ez da inoren prestakuntzarik galarazi. Behar izanez gero 150 euro-

ko laguntza eta dietak ordaindu dira. Kasu honetan irizpide horiek alboratu egin dira.

Urte asko daramagu Udala ordezkaritza lanetan, eta denetik bizitzea tokatu izan zaigu. Gustukoak izan ala ez, bozkaren emaitzak beti errespetatu izan ditugu, baina kritika egiteko eskubidea dugu, besteak beste, gure zereginetako bat delako. Horregatik gure iritzia kontrako erabakiak ez ditugula onartzen leporatzea ez zaigu taxuzkoa iruditzen, are gutxiago teknikari batek egiten duenean.

**ORIOKO EZKER ABERTZALEA  
UDAL TALDEA**

## Erraustegiari ezetz!

Beldurrak elkartu gintuen orain hilabete dezente gaur egungo Errausketaren Aurkako Orioko Taldekoak. Herritik zazpi kilometro eskasera erai-kiko omen zuten azkenean erraustegia, batzuek hala erabakita. Gainera zetorrena munstro izugarri bat bailitzan imajinatzen genuen hasieran, baina pixkanaka eta ezjakintasunetik ateratzen joan garen heinean, informatuz, ikasiz, zaborren kudeaketa eredu bezala saldu nahi diguten munstro horrek ekar ditzakeen ondorio larriak jakitera iritsi gara. Gizarte egitura kapitalista honetan batzuen poltsikoak beteko dituen diru makina izatea helburutzat duen obra dela ondorioztatzera iritsi gara.

Sortu zenetik, erraustegiak osasunarekiko eta ingurumenarekiko izango dituen eragin kaltegarriak herritarrei

azaltzea izan du helburu taldeak. Biribildune nahiz herriko seinaleetan gezi gorri informatzaileak ezarri eta aldarrikapenak pankarta bidez eginez, erraustegiaren arazoa herritarren begien aurrean jartzea lortu dugu.

Hondakinen lege berriaren proposamena legebiltzarrean eztabaidatzea bultzatzeko sinadurak herrian biltzen ibili ginen, nahiz eta denera bildutako 35.000 sinadurek zakerretan bukatu duten, erraustegia inposatu nahi digutenek hala nahi izan dutelako.

Guztiaren gainera guzti guzti aurrera goaz, gero eta ilusio handiagorekin lanean, nahiz eta, era berean, amorrua sortu digun Eusko Jaurlaritzak obrari eman berri dion ingurumen baimen bateratuak. Izan ere, erraustegia egiteko obrak hasi dira dagoeneko Zubietan.

Orioko Udala osatzen duten talde politiko gehien-goak obra honen kontra dagoela azaldu zuen iazko urriko udalbatzarrean. Udalaritza eta herritarroiek dagokigu orain proiektu suntsitzaile honi Ez! esatea.

Horretarako aukera polita izango dugu ekainaren 6an Orion, errausketaren aurkako egunean. Animatu eta parte hartu!

**ERRAUSKETAREN AURKAKO  
ORIOKO TALDEA**

## Piragua irteerako dirua jasotzeko

Maiatzaren 15ean piragua irteera antolatu genuen Herrioko lagunok, Ori ibai-ko txokoak ezagutzeko; baina,

eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi genuen. Seguruenik, aurrerago egingo dugu, baina oraindik ez dugu datarik zehaztu.

Izena eman zuen jendea-ri 3 euro eskatu genizkion piragua alokatzeko, eta dirua bueltan jaso nahi duenak kultur etxean izango du.

**HERRIO NATUR TALDEA**

## Sorgin dantzarako deialdia

Sanjoanek iristear daudela eta, jada hasi gara Harribil dantza taldeko kideok egun horretako prestaketak egiten. Urtero bezala, San Joan bezperan herrian giro pixka bat sortzeko asmoz, kalejira egingo dugu, eta gero, eguraldi ona lagun badugu, ikastola aurreko plazan, suaren inguruan, zer ikusirik izango da. Horretarako, ezinbestekoa zaigu zuen guztion laguntza.

Horregatik, sorginen kalejira gurekin parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, LH2tik aurrerako haur, gazte eta heldu guztiok. Sorginez jantzita, euskal kultura zabal dezagun lau haizetara.

Beraz, animatzen zaretenak, etor zaitezte ekainaren 3an, arratsaldeko 18:00etan, Kosta tailerrera. Animatu!

**HARRIBIL DANTZA TALDEA**



10 HERRIALDEETAKO MAHAI BANA JARRIKO DA MAIATZAREN 29AN, HERRIKO PLAZAN

# Aste osoko festa dakarkigu kultur aniztasunak plazara

**Maiatzaren bukaeran egingo da aurten aste osokoa izatera pasa den Kultur Aniztasunaren Jaia.**

*Gu, Afrikan, Amerikan, Asian edo European jaiotako oriotarrak, gaurko festak batu gaituen herritarrak...* hitz horiekin hasiko da Kultur Aniztasunaren Asteko izana jasotzen duen adierazpena, maiatzaren 29an irakurriko dena. Iazko lehen edizioan ez bezala, astebe hartuko du aurten go jaiak, hilaren 26an hasi eta 30arekin, Kukuarri egunarekin, bukatuz. Hala ere, festa giroa hartzen joateko, hasiak daude munduko sukaldaritza ikastaroarekin. Hiru saio egin dituzte, dagoeneko, eta beste bat dute oraindik. 17 lagun aritu dira Mexikoko, Nikaraguako eta Portugalgo jakiak prestatu eta dastatzen. Datorren astean Brasilen txanda izango da.



Mundu zabaleko musikak eta dantzak izango dira ikusgai eta entzungai datorren asteko larunbatean.

KARKARA

## HASIERA

Solasaldi bana egingo da hilaren 26an eta 31n: Boliviari buruz arituko dira asteazkenean eta Mexikoz hitz egingo dute bigarrenetan. Kultur etxean izango dira biak, 19:00etan.

Maiatzaren 28an, berriz, etorri berriak diren neskak bertakoen aurka arituko dira sofbolean, 17:30ean, Mendibeltz zelaian. Futbol partida ere jokatu dute gero mutilek, 18:30ean.

## EGUN HANDIA, LARUNBATEAN

Senegal, Brasil, Ekuador, Maroko, Nikaragua, Portugal, Kuba, Mexiko, Bolivia eta Euskal Herriko guneak izango ditu jaiak ardatz plazan. Egun osoan, 11:00etan hasi eta 24:00ak arte, han izango dira guztiak, beren jaki eta edariak eskaintzeko eta beren sorterriko kultura ezagutzera emateko.

teko, Goiko Kaleko festa batzordekoek jarritako tabernarekin batera.

12:00etan hasiko da ohol-tza gaineko ikuskizuna: Agurraren ondoren, kanta bat

abestuko du ikastolako Olaxka abesbatzak; ikastolako haurrekin jarraituz, mapamundibatzen aurrean antzerkia egingo dute; ikusleen hankak dantzan jarraraziko dituzte gero

Zumaiako perkusio afrikarreko taldekideek 13:15ean; Ekuadorreko eta Boliviako musikarien txanda izango da arratsaldean, 18:00etan; dantza saioa eskainiko dute, horren ostean, bi herrialdeotako lagunek; ondoren, Brasilgo eta Nikaraguako herri-tarrek ere dantza emanaldia egingo dute eta baita Harribil taldeak ere.

19:45ean, *Gu, munduko oriotarrak* adierazpena irakurriko da. 20:00etan, berriz, Errikotxiako bertso saioa izango da, musikari andinoren laguntzarekin. Brasilgo *Brasilokas* eta *Samba Brasil* taldeen musika eta dantza emanaldiarekin bukatuko dira ohol-tza gaineko ekintzak.

Igandean, Kukuarrira igoko dira guztiak, 10:00etan plaza-tatik abiatuta.

## Oriotarrak gara gu ere

Senegaldarren elkarteko kideak oso gustura gaude festa egun honetan parte hartuko dugulako; batez ere, Orioko herriko biztanle gisa izango garelako bertan. Asko zor diogu, gainera, herriari gizarteratzen eta askatasuna lortzen asko lagundu digulako. Sarriago emango genuke gure kulturaren berri, baina denbora dela eta, ezinezkoa zaigu.

Bestalde, eta ez du hargatik garrantzi gutxiago, Udalari eskerrak emateko baliatu nahi dugu tarte hau, gure herrialdean hainbeste heriotza eragiten dituen malariaren aurka egiteko eltxo-sareak erosteko diru-laguntza emateagatik.

SIDYA BODIAN | ORIOKO SENEGALDARREN ELKARTEKO ORDEZKARIA



EKAINEAN HASIKO DIRA LANEAN GEHIENTSUENAK; UZTAILEAN, GAINERAKOAK

# Udako lanpostuak betetzeko zerrenda kaleratu dute

**Uda garairako 13 lanpostu betetzeko 112 lagunek egin zuten azterketa apirilean. Aukeratuen zerrenda kaleratu berri du Udalak.**

Ostiral goizean, maiatzaren 14an, udako lanpostuetarako aukeratuen zerrenda eman zuen ezagutzera Orioko Udalak. Krisiak bultzatuta, inoiz baino hautagai gehiago izan da aurtengoan, 112 lagunek egin baitzituzten lanpostua eskuratzeko azterketa eta elkarriketa. Euskarako proba, berriz, EGA ez zuten 90 inguru lagunek egin behar izan zuten. Balorazioak eginda, puntuazio altuena izan dutenek lortu dute lanpostua eskuratzeko.

## ZERRENDA

Kanpinerako lau zaindari hartu ditu Udalak: Ramon Karre- ra Uranga, Aitor Garmendia Manzisidor, Iñaki Cotado Azkue eta Aitor Lopetegi Zumeta. Norbaitek lanpostuari uko egin ez gero, orde- zkoak ere izendatu dituzte: Iban Urretabizkaia Arangu- ren eta Mikel San Sebastian Martikorena.

Udaltzain laguntzaile berriak, berriz, Garazi Ibi- rriaga Zubimendi, Eneko Ostolaza Sorreluz eta Asier Zabaleta Escudero izango dira. Mikel Arizeta Alkorta dago ordezkari izendatuta.

Hondartzako kabinak gar- bitzen arituko dira ekainean



Jone Miren Esnal zumaiarra dugu turismo bulegoko arduradun berria.

KARKARA

**Inoiz baino jende gehiago izan da aurten izena eman duena lanposturen bat eskuratzeko: 112 lagun, guztira**

hasita, Eneko Azkue Solabe- rrieta eta Ilazki Liebana Zin- kunegi. Iñaki Eizagirre San

Sebastian eta Haizea Zinku- negi Lazkano dira beren orde- zkoak.

Kanpineko komunak gar- bitzeko ardura, aldiz, Iñaki Zinkunegi Irurek, Iñigo Arrio- la Irizarrek eta Iban Urreta- bizkaia Aranguren hartu- ko dute. Mikel Aramendi Can- secorentzat izango da lanpostua aurrekoren batek hartu nahi ez badu.

Turismo bulegoan eta kan- pineko harreran Jone Miren Esnal Unanue zumaiarra hasi da, dagoeneko, lanean.

## LABUR

### ERLIJIOA Jaunartzeak

Maiatzaren 16an egin zuten Lehen Jaunartzea Orioko 44 hurrek; Komu- nio Handia, berriz, ekai- naren 6an egingo dute herriko 30 gaztetxok.

Aian hilaren 23an egin- go dute Lehen Jaunartzea eta Komunio Handia hamahiruna hurrek.

### MENDIA Kukuarri eguna

Maiatzaren 30ean ospa- tuko da aurten Kukuarri eguna. Urtero bezala, fes- ta giroa izango da mendi puntan: 11:00etan, otoi- zaldia emango du apaiz- zak; eta hamaiketako eskainiko dute Talai Men- di elkartekoek goizean.

### LANGABEZIA Behera

Foro-ciudad.com-ek emandako datuen arabe- ra, azken bi hilabeteotan gora egin ondoren, apiri- lean jaitsi egin da langa- betuen kopurua Orion: 259 herritar zeuden lanik gabe otsailean, 266 martxoan eta 243 apirilean.

Egungo langabetueta- tik 135 gizonetakoak dira eta 108 emakumetakoak; 25 eta 44 urtekoak dira gehienak, 147; eta zerbi- tzuen alorrekoak asko eta asko, 129. Industriak eta eraikuntzak beste 113 lan- gabetu utzi dituzte; 68 eta 35, hurrenez hurren.

Maidor Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.  
Arantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

 **ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abelantzi, 6 - Tel/Fax: 943 83 12-19  
20809 ORIO

SALATXO ABESBATZAREN LAGUNTZA IZAN DU TALDEAK ABESTI BATEAN

# Ekainean disko berria kaleratuko du Gozategik

Izena erabaki gabe badago ere, 12 abestik osatuko dute diskoa eta *Jon Uein* izango da aurrerapen abestia.

Hurrengo diskoaren grabaketa bukatzeko lanetan buru belarri dabilta Gozategi taldeko musikariak egun hauean. Oraindik ez dago argitaratze datarik zehaztuta eta diskoaren izena ere ez, baina ekainaren erdialderako 12 abestiz osatutako CDa kalean izatea espero dute, *sanpedroak baino lehenago, behintzat*, aitortu digu Asier Gozategik. Hala ere, zaleek ez dute horrenbeste itxaron beharko diskoaren nondik norakoak ezagutzeko, *Jon Uein* abestia maiatzaren bukaeratik aurrera entzungai egongo baita irratietan eta tabernetan eta baita KARKARA.COM atarian ere.

Disko berri honekin udako jai giroa alaitzeko asmoz dator Gozategi taldea abesti festazaleekin. *Betiko martxan jarraitu nahi dugu, festarako abesti martxosoak eta hitz kritikoak eginez*, esan digu triki-



Salatxoko gizonetako Asier Gozategirekin, grabaketa estudioan.

BALEA MUSIKA IDEIAK

tilariak.

GOZTGI.KOM argitaratu zutenetik lau urte pasa dira, eta bitartean zuzeneko emanaldietan aritu dira jo eta ke, Aste Santuaren ondoren

proiektu berriari forma ematen hasi ziren arte.


## ELKARLANEAN

Salatxo abesbatzaren laguntza izan dute grabatutako

abesti batean. Mariatxien modura, bals mexikar bat abestu dute abesbatzako gizonen. Beti bezala, Ainhoa Gozategi arituko da diskoan panderoa jotzen.

**Zaragueta Eskola Orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



**RAMIRO**  
argazkiak

·ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora  
·jaunartzeak  
50 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com

**ALTERRI**  
Karta eraberritua

Asteburuan, eguerdi eta gauean,  
mema berezikiak

943830762

**BACHEN LOREAK**  
**OREKA ENERGETIKOA**

- tratamendu naturalak -
- oreka energetikoa -
- itxarpen kienak -

*Alfonso Fernandez Muegura*

Tel: 665 726 291  
email: oreka.blue@gmail.com

**agirresarobe** ARKITEKTURA  
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXERATZETA ETA LOKALEN ERRE-DUNA PROIEKTUAK  
PATXADA ETA TRILATUEN ERABERRITZE PROIEKTUAK, BERRALDIAK  
OBRA ZUZENDARITZAK, IRERKEMAK, GUREN KORDINAZUNTZA

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK, HIRIBINTZA, LURREN KUDERAKETA

BORJA AGIRRESAROBEN LORTEGI ARKITEKTURA  
BURKILDE 5, 48100A ZARAGOZA

TEL: 635 731 722





Taldekideak pozik ageri dira etxeko azken partida irabazi eta gero.

KARKARA

LA BELLOTARI 2-5 IRABAZI OSTEAN, NAZIONAL B MAILAN GERATZEA LORTU DUTE

## Orioko Tabernak lasai bukatuko du denboraldia

**Azken jardunaldian zer gertatzen den berdindio, ez da-eta oriotarrentzat aldaketarik izango sailkapenean.**

Maiatzaren 16an, Orioko Tabernak 2009-10 denboraldian etxean jokatu beharreko azken partida izan zuen Karelana. Santurtziren aurka aritu ziren oriotarrak eta 6-4 irabaztea lortu zuten. Lasai jokatu zuten partida hori, izan ere, aurreko astean La Bellotari 2-5 irabazi ostean, Nazional B mailari eustea lortu zuten. *Bost talde mailaz jaitziko dira aurten eta bi jardunaldiren faltan mailari eutsi izana izugarritzko lorpena da geurea bezalako talde xume batentzat*, azaldu digu Alberto Casado entrenatzaileak.

Lesioengatik eta lan ordu-tegiek sortutako arazoengatik denboraldian zehar talde motza izan badute ere, zor-

tzigarren daude une honetan, 29 partidatan 11 garaipen eta 5 berdinketa lortuta -38 puntu dituzte guztira-. Azken jardunaldian gertatzen dena gertatuta ere, ez dute ez gora eta ez behera egingo sailkapenean.

### AURTEN, EPAILE

Aurreko urteetan sufritzen ohituta badaude ere, aurten bestelako rola jokatzeko egokitu zaie Orioko Tabernak taldekoei.

Santurtzik garaipena behar zuen azken jardunaldira aukerekin heltzeko; baina, Orion galdu ostean, maila galdu du. Hurrengo partida, berriz, eta denboraldiko azkena, Euskalduna talde andoaindarraren kontra jokatu dute oriotarrek, kanpoan. Euskaldunak azken jardunaldira arte bizirautea lortu du, baina oso zaila izango du mailari eustea, Orioko taldeari ira-

**Aurreko urteetan franko sufritu badute ere, aurten epaile izatea egokitu zaie oriotarrei**

bazteaz gain, La Bellotak galteza behar bailuke.

*Borrero izatea ez dugu gustuko, batez ere beste urteetan gu ere jaisteko zorian izan garelako; baina, errespetuagatik, irabaztera atera behar dugu, bestela beste bati egingo diogu eta kalte. Gainera, Jaunartzeak tarteko, ez zen jende asko etorri Orioko azken partidara eta ziur Andoainera asko joango direla animatzen. Zaleak hurbiltzen badira, ez dugu galduko*, adierazi digu Albertok.

### LABUR

#### SQUASHA

### Agirre Ligako finalean

Zarauzko hirugarren Squash Ligako txapela eskuratzeko bidean da, hirugarren urtez, Iñigo Agirre. Final-erdietan Mikel Landari 3 eta 1 irabazita, azken partida jokatu du maiatzaren 22an. Raul Pardo edo Federico Hortet izango du aurkari.

Jose Luis Azkonobietak ezin izan zuen Ligako final-erdietara pasa, final-laurdenetan 3-2 galdu baitzuen Federico Horteten aurka.

Xabier Iribarrek, berriz, Kopako finala jokatu du.

#### SOFBOLA

### Gorenean

Italiako 2. mailan sei urtez jokatzeko aritu ondoren, datorren denboraldian maila gorenean jokatu du Rebecca Carrera sofbol jokalaria. Iazko txapela lortu zuen DES Caserta taldearekin jardungo da hemendik aurrera. Liga hasita dago eta hemendik gutxira, abuztuaren Euro-pako txapelketan izango da oriotarra.

#### ARRAUNA

### Aurrena

Orioko gizonezko seniorrak nagusi izan ziren maiatzaren 15ean eta 16an Orion eta Donostian jokatutako Gipuzkoako Trainerilla Ligako jardunaldietan. Orion San Pedro izan zen bigarren, 7 segundo eta 30 ehunenera, eta Donostian, berriz, Hondarribia, 2 segundo eta 27 ehunenera.

Jardunaldi horietan, senior neskek ere parte hartu zuten. Oriolauga izan zen 2 estropadetan eta Oriola B, berriz, 7. Orion eta 5. Donostian.



HERRI KIROLAK

## Idoiak txapela

Maiatzaren 16an, Aiako frontoian, Euskadiko txapeldun izendatu zuten Idoia Etxeberria harri-jasotzailea. Miren Urkiola bolibartarraren kontra aritu zen eta hiru harrirekin jardun ziren -88 kiloko zilindroa, 70 kiloko kuboa eta 60 kiloko esfera- eta lehenengoan izan ezik beste bietan Etxeberria nagusitu zen. Zilindroarekin 11na altxaldi egin zituzten; kuboarekin, Etxeberria 16 eta Urkiola 13; eta esferikoa oriotarrak 22 aldiz berdindu zuen eta bilbotarrak, berriz, 21 aldiz. Azkenean, paretsu, baina Idoia Etxeberria eraman zuen Euskadiko txapela.



Idoia txapelarekin.

HITZA

HARMAILATIK

## Emakumeok ere uretan

**D**akizuen, Orioko emakumezkoen trainerua uretan izango da aurre, lehen aldiz. Dagoeneko lehen urratsak eman ditugu; jokatu dugu traineru estropada bat, Memorial Jon Sasieta jaitsiera. Bizkaitarrak izan genituen aurkari bakarrak. Txalupan jokatutako lehen estropadazateko, esperientzia polita izan zen, batzuentzat ahaztezina. Gustura bukatu genuen eginda-ko lanarekin.

Trainerillak ere atera ditugu. Aste honetan bi estropada izan ditugu, eta nabaria da hobetzen ari garela. Ergometroko proba ere egin dugu, fisikoa zer mailatan dagoen ikusi eta bakoitzari entrenamendu bereziak jartzeko.

Hasieran, hainbat tira-bira izan genituen: entrenatzaile-rik gabe hasi genuen denboraldia eta geure kabuz entrenatu genuen. Irtenbide ona bazirudien ere, teknikoki norbait behar genuela argi genuen guztiok. Azkenean, nahiko etsita geundenean, Antton Beloki arraunlari ohia animatu zaigu oilategira... Nahikoa lan ematen diogu baina tira, ohitu beharko du!



NAETH AGIRRE ETA SARAI LIZASO

ARRAUNLARIAK

### Entrenatzaile-rik gabe hasi genuen denboraldia eta azkenean, Antton Beloki animatu zaigu oilategira

Bestalde, adin ezberdintasunak ere lanak eman dizkigu: batzuk, guretzat, amatoak baitira, eta gu, berentzat, alaba modukoak. Hala ere, lagunarte izugarria lortu dugu,

talde lan batean bildurik gaudela, gogor eusteko, eta ez gaitu inork geldituko! Arazoei batera aurre egiten ikasi dugu, eta horrek asko lagunduko digu aurrerantzean ere, elkartuta errazagoa baita guztia.

Lehen aipatu bezala, lehen pausuak eman ditugu. Hasiak gara uretan gogor entrenatzen. Ahal dugunetan Txiki trainerua hartu eta uretaratzen gara, eta osatzen ez garen egun horietan, trainerillak edo batelak erabiltzen ditugu. Uretan ibiltzea eta taldea uretan sortzea da kontua, ahalik eta teknika hobereana lortzeko. Astean hirutan txalupa botatzea zen asmoa, baina azkenaldian ia egunero gabiltza: berriketaldia lehorrean; uretan, hasi aurretik, eguneko berrien laburpena (kotilleoa); entrenamendua; berriz oilategia... eta, azkenik, hurrengo eguneko planteamendua.

Bukatzeko, aipatzekoa da gogo handiz hartu dugula proiektu berri hau, bai arraunlariok, baita zuzendaritzak ere, eta eskerrak eman nahi genizkioke aurrera eramaten lagundu digun Babyauto enpresari, gure ametsa egia bihurtzen laguntzeagatik.

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFINANZARIAS TALDEA  
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldi oroko zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35. Zarauz  
Tel. 943 89 13 37 / Fax. 943 89 48 41  
e-mail: harrerak@tanatorpio.net

tel/fax: 943 89 00 69  
Bilaka kalea 4. 20300 ZARAUZ

**URBIDE**  
ITURGINTZA BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ez  
telefon: 943 83 08 12

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**  
Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

**TALER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
TOLAKOAR - BILBUK

Santiago eztoa - 18 postakutua  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: mmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM  
AENOR R 180 0000  
Estarako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriiduna

ITZIAR DORRONSORO ETA NEREA FERNANDEZ | KIX KAX-EKO ESTETIZISTA ETA ILE-APAINZAILA

# “Handitzen ari da herria eta estetika zentroa behar zen”

15 urtez Andatza bailarara, Oriora edo Zarautza jaitsi behar izan dute aiarrek gorputza eder eta ilea txukun jartzera. Hemendik aurrera, ordea, herrian bertan izango dute horretarako lekua: Kix Kax.

**Ez bata eta ez bestea ez zarete aiarrak eta hara non, hemen topatu duzuen bizibidea.**

Itziar Dorronsoro: Zizurkildarra naiz ni eta mutillaguna oriotarra badut ere, Aian erosi dugu etxea. Lanbidea ere hemen dudanez, ba... zer hobeto!

Nerea Fernandez: Ni, berriz, Zarauzkoa naiz eta mutila aiarra izanda, abenduaz geroztik hemen bizi naiz, berarekin batera.

**Oso gaztea zara, Itziar -23 urte-, baina zure negozioa jartzera ausartu zara.**

I.D.: Estetizista naiz ni, eta ile-apaindegian laguntzaile aritzeko ikasketak ere eginak ditut. Aiako herrigunera jende asko etorri dela bizitzera, eta estetika kontuak lantzen dituen dendarik ez zegoela eta, animatu nintzen lokala erosi eta negozioa jartzera. Aia herri txikia izanda, ilea apaintzeko zerbitzua ere jarri beharra nuela konturatu nintzen, dena ondo joango bazen, eta lankidearen bila hasi nintzen. Ez da samurra izan, kostatu zait baten bat aurkitzea. Baina, azkenean, bion mutilen artean, Nerea konbentzitu zuten hemen aritzeko, neronek ez bainuen aurretik eza gutzen. Eskerrak! Imajina ezazu bestela, lokala hartuta, dena prest eta ni bakarrik...

Bestalde, familia eta adiskideen laguntzarik gabe ez nukeen irekiko; haien babesa eta animoak funtsekoak



Itziar eta Nerea, hurrenez hurren, ile-apaindegian.

KARKARA

**Familia eta adiskideen babesa eta animoak funtsekoak izan zaizkit**

izan zaizkit pauso hau emateko.

N.F.: Pentsa, haiek jardun dira paretak margotzen, txukuntzen... dirutza aurrezten da beren laguntzarekin.

I.D.: Luze joan dira lanak, kontratua 2007ko apirilean sinatu bainuen -eraikina altxatzeko zegoen orduan-, baina ireki dugu azkenean. Egia esan, 3 urte horiek ondo etorri zaizkit, ikasten jardun

**Egun berezietan gorputza belzteko balio duen azukre-kanabera ekarriko dut orain**

bainaiz. Eta zertan sartzera nindoan ohartzeko ere balio izan didate.

**Bi aste egingo ditu dendak. Zer moduz hasiera?**

N.F.: Gogorra. Jende asko dabilkigu. Hemendik pasata koei buruzko iritziak entzunda, bezeroak eta ingurukoak gustura daudela ematen du. *Maitte oso guapa jarri duzue bezalakoak esaten dizkigute.*

**Zer nolako eskaintza duzue?**

I.D.: Ile-apaindegiko kontuak Nerearen esku izaten dira eta estetika kontuak nik eramaten ditut. Zer eskaintzen dugun? Ilea apaintzeaz gain, depilazioa -argizariarekin eta laserrarekin-, betileen permanentea, makillajea, betileen luzaerak, manikurak, pedikurak... *Azukre-kanabera* ekartzekotan naiz orain, ezkontzak bezalako egun berezietan, astebete inguru irauten du eta beltzaren jartzeko balio du. Solariumaren alternatiba izan daiteke eta nahiko teknika berria da.

Hala ere, Nereak lan gehiago izan du orain arte nik baino. Eguraldi ona hasten denean hasten da bat depilazioak eta horrelakoak egiten.

N.F.: Gainerakoan, larruzala garbitzera nahikoa jende etorri da.

I.D.: Ordutegiari dagokionez, asteleheneetik ostegunera, 09:30etik 12:30era eta 15:00etik 20:00etara irekitzen dugu. Ostiraletan dena segidan egiten dugu; eta larunbatetan goizez bakarrik.

**Emakumeak ala gizonak etortzen zaizkizue gehiago?**

N.F.: Emakumeak gehiago. Hala ere, uste dugu jende askok ez duela jakin oraindik denda ezabalik dugula. Baze-kiten ile-apaindegia jartze-koak ginela, baina, agian, oraindik lanean hasteko gaudela uste dute.

I.D.: Mutilak neskak baino gehiago etorriko zirela uste nuen nik, baserriar asko dago eta. Tintea ematera ere herriar asko etorri da eta horrek ere sorpresaz harrapatu nau, zaila izaten baita aurreko ile-apaindegiko tintaren kolore bera beste toki batean aurkitzea. Jendea ausartu da, behintzat.





Kaleratuak berriz hartuko ez dituzten arren, lanerako baldintza hobekak lortu dituzte grebarekin langileek.

KARKARA

BESTE 6 LANGILEREN KALERATZEA IZAN ZEN GREBAREN ARRAZOI NAGUSIA

# Estampaciones Gipuzkoako langileak helburua beteta

**Azken urtean 54 langile izatetik 26 izatera pasa da lantegia eta 3 EEE jasan dituzte.**

Maiatzaren 11n Estampaciones Gipuzkoako langileek greba mugagabea hasi zuten. Iazko martxoan kaleratu zituzten 9 langileez gain, hil honen hasieran enpresako zuzendaritzak beste 6 lagun bidali zituen kalera, eta hori izan zen greba eragin zuen arrazoi nagusia.

Enpresa-batzordeko eta ELA sindikatuko ordezkari Urko Manterolak adierazi digunez, *Gutuna eman, maiatzeko soldata eta gutxiengo kalte-ordaina ordaindu, eta gehiago ez itzultzeko esan zieten kaleratutako langileei. Hori jakin bezain pronto esan genien bai Estampaciones Gipuzkoako zuzendaritzari bai Industria Sailari maiatzaren 11n greba mugagabea hasiko genuela.*

Gauzak horrela, maiatzaren 10ean, sindikatu eta ordezkari bilerarako deia egin zuten nagusiak, greba eragozteko. *Kaleratuak berriz hartzea edo, gutxienez, adostutako kalte-ordaina ematea eta langile gehiago ez kaleratzeko konpromisoa eskatu genion, baina ez zuen baldintzetako bat bera ere onartu, azaldu digu Manterolak.*

Langileek bazekiten enpresak dezenteko lan eskera jaso zuela hurrengo egunetarako. Hori dela eta, eguneko 24 orduz egon ziren sarrerako hesian, 8 ordu txandak egiten, eta lanerako materialez beteta zetorren kamioi bat lantegira ez sartzea lortu zuten.

## BERRIZ LANERA

Maiatzaren 13an beste bilera deitu zuen nagusiak eta, akordiora iritsita, ostiralean lanera itzuli ziren. Kaleratuak lan egindako urteko 8 egun gehia-

## Kaleratuak berriz hartzea eta inor gehiago ez botatzea eskatzen zuten langileak

go ordaintzea, 2013ra arte kaleratze gehiago ez egotea, epe berean aldi baterako lanerako enpresekin kontraturikez sinatzea eta errelebo-kontratu epeak bukatzean langileak zuzenean kontratatzea adostu zuten.

## 54TIK 26RA URTEBETEAN

Iazko kaleratzeen aurretik 54 langile zituen Estampaciones Gipuzkoak eta, erretiroak eta borondatezko bajak tarteko, oraingo 6 kaleratzeekin 26 langile ditu gaur egun. Urtebetean, langileria erdira jaitzeaz gain, 3 EEE –enplegua erregulatzeko espediente– jasan ditu enpresak.

## LABUR

### HITZALDIA

## Gizarte sareak

*Zer jakin behar dugu gurasook gizarte sareei buruz?* hitzaldia antolatu du guraso elkarteak maiatzaren 26rako. Esther Martinez izango da gaia jorrazteko arduraduna, kultur etxean, 18:00etan hasita.

### KIROLA

## Zaldi-mandoak

Zaldi-mando probak antolatu ditu Aiako idi dema elkarteak. Hilaren 21ean hasita, sei egunez, momentuko astorik eta mandorik trebeak ari-tuko dira 1.050 kiloko harriari tiraka, probalekuan. Kilo bateko gainzama eraman beharko dute 400 kilotik gorako kilo bakoitzeko. Parte hartuko duten 20 talde edo elkar-teetatik 17 bizkaitarrak dira eta gainerako hiruk gipuzkoarrak.

## Aiako igoera

Escuderia Lagun-Arteak antolatuta, maiatzaren 29an, Autoen 3. Aiako Igoera jokatu da, Gipuzkoako eta Euskadiko Mendi Txapelketari dagokiona. Hori dela eta, GI-3710 errepidea itxita egongo da 14:00etatik 18:00etara.

### FESTA

## Koadrila eguna

Ekainaren 6an, igandearrekin, Koadrila eguna ospatuko da Pagoetakoa-rekin batera. Bazkarirako izena emateko azken eguna ekainaren 3a da, kultur etxean, eta, janaria koadrila bakoitzak eraman behar badu ere, euro bana ordaindu behar da pertsonako. Gehienez, 220 rentzat izango da tokia.

## AIAKO LEIHOA

# Hamasei urte eta gero...

**B**ai, atzo zela iruditzen zait, baina hamasei urte datorren San Joan egunean beteko dira gure etxea atondu eta kanpotarrei ostatu ematera ausartu ginenetik. Arraro samar begiratzen zigutenak bagenituen gure inguruan; ze abenturatan sartzea otegingoazen! artean, base-rietan turistei ostatu emateak zalantzak sortzen zituen, gaur egun oso normaltzat jotzen bada ere.

Gogoan dut hasierako urte haietan gure lan egunak Aste Santu, zubi eta udara mugatzen zirela. Pixkanaka urteko asteburuetan lan egiten hasi ginen eta gaur egun esan dezaket ia urte guztiko asteburuetan izaten dela norbait etxean.

Lan egiteko modua oso aberasgarria izan da niretzat,

jende eta kultura asko ezagutzeko aukera eman didalako. Aldi berean, lantegia etxean izateak asko lagundu zigun umeak hazteko garaian. Etxea kanpotarrez beteta ezagutu izan dute beti, eta esango nuke horrek onura ekarri diela, irekiagoak izatera eramane baititu, baita txikitatik erdaraz ondo moldatzera ere. Guk bezala, lagun handiak egiteko parada izan dute.

**Umeei ere onura ekarri die... irekiagoak dira eta txikitatik erdaraz ondo moldatu behar izan dute**

Gurasoekin umetan etortzen ziren haurrak gaur beren bikotekideekin etortzen direla esan behar dut, eta erabat ahaztuta ditudan abenturak gogorarazten dizkidatela. Joan den udan, esaterako, bikote batek kontatu zidan txikitari atari aurreko meta azpian ezkutaketan jolastea gustatzen zitzaizela gauetan.

Xelebrekeria asko gertatu zaizkigu horrenbeste urtetan,

**Aurreko urtean, amona bat etorri zitzaigun familiarekin ehungarren urtebetetzea ospatzera**

baina batzuk kontatze aldera, aurreko urtean izan genuen bisita berezi bat aipatuko nuke. Amona bat etorri zitzaigun familiarekin ehungarren urtebetetzea ospatzera, eta hor gure sorpresa aurten ehun eta batgarrena ospatzera berriz etorri zitzaigunean! Aipatzekoa da, baita ere, aiari bat Istanbulen oportetan zebilela bertako batek Aian eguna zela esan ziola, gure etxean...

Etorkizunera begira garbi daukat nire alorrean formazioa izateak lagunduko didala lehiakor izaten, bezeroak egunetik egunera gehiago eskatzen duelako, eta gauza nabaria da eskatzen duguna ematen diguten lekura jotzen dugula guztiok.

MARIA JESUS ARRUABARRENA

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Asentsio feria

Jende ugari izan zen Aian igandean, hotz egin bazuen ere. Eguerdian partean artisauek eta baserritarrek –aiarrak tartean– barazkiak, gaztak, ukenduak, eztiak, ardoa... eskaini zituzten batetik bestera zebilen ikusle goarentzat, tarteka arkumea eta txakolina edo sagardoa dastatzen zuten bitartean. Horien artean zegoen Ricardo Mediavilla erremintari legazpiarra, eta burdinarekin hainbat lan bitxi egin zituen inguruko umeak horiek noiz jaso zain zituela.

Arratsaldean, berriz, frontoia gainezka egon zen harri-jasotzaileak ikusteko.





Bizilekua Aian duten arren, munduan barrena asko ibilitakoa da familia hau.

OTI ETA PETER

OTI, PETER, OXEL ETA HAIZEA | BIDAIAIRIAK

# “Bidaia luzea elkarrekin egiteak asko eman digu”

PAT COWIE

**N**ola sortu zen bidaia egiteko ideia?

Peter: Oti Lanbide Heziketan irakasle lan egiten duen arkitektoa da, eta urte sabatikoa zuen. Irlandara joateko gazteentzako bidaiak antolatzen ditut nik, berriz, eta apirila bitartean lana telefonoz eta internet bidez egiten dut gehienbat.

Oti: Sabatikoa aprobetxatzeko, bidaia bat egin nahi genuen, seme-alabak oso adin

*Oti Otxoa iruindarrak eta Peter Ocaoinnealain irlandarrak Oxel –10 urte– eta Haizea –8 urte– Aiako eskolatik atera eta bidaia luze bati ekin zioten abenduan. Australia, Argentina eta Brasil bisitatu ondoren, apirilean bueltatu ziren etxera. Galdera mordoa genituen egiteko.*

egokian daudelako eta ezagutzen ez dituzten hainbat lurralde, jende eta egoera ezagutarazteko. Orain arte libu-

ruen bidez piztu diegu interesa, baina aurrez aurre gauza berriak ezagutzea ikaragarria da gaztetxoentzat.

**Noiz hasi zineten haiekin bidaiaz hitz egiten?**

P: Orain dela 5 urte Oti, sabatikoa eskatu eta soldata txikiagoakobratzen hasi zenean. Aurten ez da lanera joan, baina diru hori berdin jaso du.

Nik txikitatik izan dut Tasmania ezagutzeko grina: irlandar dezente bidali zituzten hara 19. mendean zigortuta, legearen kontrako zerbait egiteagatik, eta izugarrizko bizi-tza gogorra izan zuten. Australiar eta tasmaniar askoren arbasoak konbiktuak edo kartzelariak ziren.

O: Hasieran, jakina, ume-ekmunduaren inguruan buelta osoa eman nahi zuten, baina plana murrizten joan ahal, Australia beti gelditzen zen aurrean. Nire aitona-amonak Argentinan bizi ziren garai batean, eta aita han jaio zen. Eta Argentinan eta Brasilen lagunak ditugu.

### Bidaia pausoz pauso prestatu zenuten?

P: Ez. Aurretik lotu genituen bidaia nagusiak. Gai nontzean, malgutasuna nahi genuen. Horretarako, autokarabana asko laguntzen du.

O: Artean Aian geundela, astebete edo pasa genuen erabakitzen zer ikusi nahi genuen Australian, diruak eta denborak asko mugatzen baitzaitu. Gero, autokarabana geundela, egunero erabakitzen genuen hurrengo egunean zer egin. Hala ere, Tasmanian 6 egunen ordez 12 eman genituen, hain zen ederra! Argentinan eta Brasilen bagenekien lagun batzuei bisita egingo geniela, besterik ez.

P: Eta kilometro asko egingo genituela. Azkenean, Australian eta Tasmanian 7.500 km izan dira, Argentinan 4.500 eta Brasilen 1.000.

### Eskolako lana egunean eramateko ere zerbait prestatu zenuten?

O: Hitz egin genuen irakasle eta inspektorearekin eta oso ondo hartu zuten, umeen bizitza aberasteko bide bat bezala. Harrituta gelditu ginen eskolako irakasleen laguntza ikusita. Haien ordezkoa izan naizenez, ikusi dut zeinen lan zaila egiten duten, zenbat lorzen duten. Ez da batere erraza.

### Turisten modura bisitatu zenuten Australia?

P: Bai. Horretarako ondo prestatuta dago: kanpinak, barbakoak... Hango *Grey Nomads*—nomada grisak—ezagutu genituen: erretreta hartu eta bidaiatzen dutenak. Bidaizaleen kultura dute, eta klimak ere laguntzen du.

O: Uluru (Ayer's Rock) ezagutzea helburu nagusi bat

zen: Adelaiden furgoneta hartu eta 1.600 km egin genituen, basamortua zeharkatuz, 40°Cko tenperaturarekin! Hala ere, merezi zuen horrela egiteak eta ez abioiez. Hango *Outback* hain da hutsa, lehorra, zabala... Uluru oso leku berezia da, magikoa.

Kostaldea, berriz, oso polita da. Herri batetik bestera joaten zara, egun batetik bestera erreserba eginez. Izugarritzko ostatu sare zabala dago familia osoa eroso, garbi eta merke gelditzeko. Haurrak eskolara bueltatzeko garaia zelako, han erreza zen lekua aurkitzea, baina arrazoi berberetatik gurek ez zuten bertako umeekin harreman handirik izan.

### Eta aborigenekin?

P: Guk ezagutu ditugun lekuetan gutxi gelditzen dira. Haien patua benetan latza izan zen. Azken 200 urteetan iritsi ziren australiarrek, orain dela gutxi arte ez zuten ezer esan nahi aborigenei buruz. Orain, bai, publikoki onartzen dute sarraskia izan zela, kanpotik joandakoek hango lurra eta aberastasuna bereganatu zituztelako, eta indigenek mendeetan zaindu zituzten lurretatik bota edo hil zituzten. Gizarteak ez du lortu haien zoritxarrari buelta ematea. Galduta bezala bizi dira aborigenak, lanik gabe, helbururik gabe. Leku komertzialean ikusten dira, eserita, musika jotzen, diru eske, mozkortuta. Ez dira gaurko gizartean sartzen, baina lehengo bizimodua galdu dute, eta linbo txar batean gelditu dira. Hala ere, asko estimatzen da haien literatura eta artea.

### Gustukoa ez zenuten beste zerbait ikusi al zenuten?

O: Merkataritza zentroak! Nonahi dituzu, Ipar Ameriketako estiloan, hamaika janari motarekin hornituta. Jende obeso pila ikusten da janari azkarra eta koipedun haragi asko jaten dutelako barbakoan. Garestia da, gainera, hemengo prezioekin konparatuta.



Australian eta Tasmanian ateratako argazki batzuk: Uluru, koalak, autokarabana, baso izu...

Hiriak kuriosoak dira, baina ez ederrak, historia falta zaielako, azken 200 urteetan kontrolik gabe eraiki direlako. Ez dute alde zaharrik, erakuntzek koktel bat dirudite. Sidney, ordea, bada polita, eta lorategi botaniko ederra du.

### Tasmania antzekoa da?

P: Bat ere ez. Liluratzeko modukoa da! Irlandaren tamainako irla da, baina

480.000 biztanle baino ez ditu, gehienak bi hiritan. Kutsadurarik ez dago eta oso ondo zaintzen dute izadiaren oreka. Lehen, aborigenak bizi ziren, nomadak ziren, eta errespetu handia zioten naturari, lurriari. Orain dela 200 urte europarrek kolonizatu zuten eta, gaur egun, aborigenik ez da ikusten.

O: Baso eder bat da dena, izugarritzko eukalipto handiak





garriak, Sydney...

OTI ETA PETER

daude, 80 metrokoak, eta garo erraldoiak, dinosauroen garaitik aldatu gabekoak. Ondo dakite munduan bakarra den lur berezia dutela eta aurreko mendeetan asko kaltetu zela. Neurriak hartu dituzte ondo babesteko. Zaborrontzirik, esaterako, ez dago; zaborra etxera eraman behar duzu. Autopistari ez dago, eta leku askotan ez gara sartu asfaltatu gabeko bideak zire-

lako. Animaliak nonahi ikusten dira. Zoragarria!

#### **Historia handikoa ere bai.**

P: Hala da. Port Arthurren, kartzela handia eraiki zuten kolonizatzaile ingelesak. 1788tik 1868ra 162.000 preso kanporatu zituzten Australiara, edozein garrantzi gabeko delitu egiteagatik, urte mordoko sententzia ezarrita. Gero, portaeraren arabera, eta lana

#### BIDAIA

**“Sabatikoa aprobetxatzeko, bidaiaria egin nahi genuen, seme-alabak oso adin egokian daudelako eta ezagutzen ez dituzten hainbat lurralde, jende eta egoera ezagutarazteko”**

#### TASMANIA

**“Liluratzeko modukoa da! Irlandaren tamainako irla da, baina 480.000 biztanle baino ez ditu, gehienak bi hiritan. Kutsadurarik ez dago eta oso ondo zaintzen dute izadiaren oreka”**

#### AUSTRALIAKO ABORIGENAK

**“Gizarteak ez du lortu haien zoritxarrari buelta ematea”**

#### GIZARTEA

**“Argentina hau baino 5 aldiz merkeagoa da, eta Brasil 2 aldiz. Australian ekonomia aurreratua dute, Argentinan klase ertain txirotua eta Brasilen denetik dago: dirudunak eta pobreak”**

#### ARGENTINA

**“Musika kalean, jendea ozen hitz egiten, alaitasuna... baina aurpegi tristeak ere bai, familia osoak kalean lo egiten, zaborretan janaria bilatzen”**

#### IKASITAKOAK

**“Ikasi dugu egoerara moldatzen, gauzen alde ona bilatzen, gutxiago kexatzen...”**

besteentzat eginez, pixkana lortzen zuten askatasuna. Presondegi ondoan, erreformatorio bat eraiki zuten, 8 urteko goragoko umeak bidaltzeko, eta bidaiari hil ez zirenak esklabo moduan erabiltzeko.

#### **Argentina: nolako aldaketa!**

P: Eta okerrena, *jetlaga*: larunbat goizean Australiatik abiatu eta larunbat goizean Buenos Airesera iritsi. Bi-hiru

egunetan ez zegoen ezer zuzen antolatzerik geure buruan edota gorputzean.

O: Australiako anglosaxoiekin konparatuta izugarritzko aldea: musika kalean, jendea ozen hitz egiten, alaitasuna... baina aurpegi tristeak ere bai, familia osoak kalean lo egiten, zaborretan janaria bilatzen... Argentina hondoa jota dago. Eguneko ordu guztietan egin behar

dute lan bizi ahal izateko, argindarra egunero moztzen zaie... Nahikoa eta gehiegi genuela sentituz, autoa hartu eta leku polit asko bisitatu genituen. Izugarriko autopista zuzen eta luzeak dituzte, baina auto gutxi ikusten dira, diru faltaren seinale.

### Zerk harritu zintuzten?

P: Ezin duzu 100 kilometro egin polizien kontrol batekin topo egin gabe. Egun batean neska bat eramane genuen, eta kontatu zigun astean bitan 300 kilometroko bidaia egiten duela eskolak ematen dituen ikastetxera iristeko, diru beharra hain da handia. Gobernua dirua poltsikoratzen ari denaren susmoa dugu. Bestela ulergaitza da halako lur emankorra izan eta hainbeste miseria ikustea.

O: Ekonomia horrela dabil-lakoa, oso merkea zen guretzat. Australian guk prestatzen genuen jatekoa, baina Argentinan ez zuen merezi: hamar euroekin jaten genuen laurok. Lotsa ematen zigun! Gasolina ere merkea zen, baina autoa alokatzea ez, luxuzko gauza baita.

### Aipatzeko lekuren bat?

O: Iguazuko ur-jauziek zirrara berezia egin ziguten. Naturaren indarra hain hurbildik ikusita, ikaragarria da, magikoa; egiten duten zarata sinestezina da.

P: Misioneseko lagun irlandar batekin eta bertakoa den emaztearekin izan gara. Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bat sortu dute indigenentzako etxeak eraikitzeko edo daudenak hobetzeko. Sei etxebizitzako komunitate txikiak sortzen dituzte, baratza eta ur putzu banarekin, nork bere familia aurrera ateratzeko moduan.

O: Eta egun batzuk pasa genituen Eneko Landaburu mediku higienista nafarrak Mamen emaztearekin sortu duen Osasuneko Eskola Popularrean. Enekok bertakoeekin konpartitu du beti defenditu duen osasun sistema; hau da, nahiz eta gauza gutxi izan, gai gure osasuna hobetze-

ko, deskantsua eta bizimodu sanao eginez. Hitzaldiak eta tailerrak antolatzen dituzte osasunari eta ekologiari buruz. Gainera, hemengo jendeak emandako laguntzari esker, hango gazteak nekazaritza eskolara bidaltzen dituzte, gero bertan gelditzeko eta ez hirira migratzeko. 20 edo 12 euroren truke, pentsio osoa edo erdia du bisitariak. Haiek, berriz, 130 euro behar dituzte, esaterako, gazte batek urtebeteko ikasketak egiteko.

Proiektu miresgarria da, benetan: [www.opaybo.org](http://www.opaybo.org) helbide elektronikoan dira norbaitek gehiago jakin nahi badu.

### Eta handik Brasilerara?

P: Bai, abioiaz Rio de Janeiro-ra, han auto bat hartu, eta astebete eman genuen Rio-tik 250 kilometrotara dagoen Paraty herrian, eta handik Salvador de Bahiara joan ginen, lagun baten etxera.

### Aldaketa handia berriro?

O: Arrazan oso nabarmena da. Leku batzuetan denak esklaboen ondorengoak dira, beltzak eta mestizoak, gazte ikaragarri ederrak... Sao Paulo europarragoa da; zuri gehiago eta beltzak pobreak. Salvadorren turistentzako parte kolonialetik drogak eta delinkuenteak kendu dituzte, baina hortik bi kalatara ibiltzea arriskutsua da.

P: Ikusi genuenak baratze erraldoia zirudien, eta telefonoko kableek zigi-zaga egiten dute errepedeen gainean, oihañak *irentsi* ez ditzan! Hango frutaren zapore eta usaia! Arroza eta babarrun asko jaten dute, baina ogirik ez.

### Eta bertako ekonomia?

O: Gutxi gorabehera, Argentina Euskal Herria baino 5 aldiz merkeagoa da, eta Brasil, ostera, 2 aldiz merkeagoa hau baino. Australian ekonomia aurreratua dute, Argentinan klase ertain txirotua eta Brasilen dirudunak eta pobreak, kontraste handia eta bortitza.



Brasilen eta Argentinan kontraste handiak aurkitu zituzten.

### Leku politen bat?

P: Mangeseo: itsasgoran, irla bihurtzen da eta itsasberheran, kostarekin lotuta dago. Autorik ez dago han. Paradisua, benetan. Bertakoak, beltzak denak, turismotik bizi dira eta oso patxada handikoak dira.

Hurbil dagoen Gamboa herrian Bermeoko eta Tafallako bikote banarekin izan ginen. Han, azkenean, beste umeekin jolasteko aukera izan zuten gurek.

### Zer eman dizue bidaiak?

P: Aurreneko aldia da horrela bizi izan garela. Ikusten da bi haurren arteko harremana hobetu egin dela.

O: Dagoenera moldatzen ikasi dugu. Normalean, gutura ez bazaude etxeko giroan, kalera irteten zara. Bidaiari esker, ikasi dugu egoerara moldatzen, gutxiago kexatzen, dagoena jaten, gauzen alde ona bilatzen. Intimitate falta nabarmena izan da eta gogorra da, baina onartuta





OTI ETA PETER

genuen *prezioan* sartzen zela.

Hemengo bizitzan beti lanpetuta nago, eta ez zen eroso niretzat plazera asetzeko aukera zabala izatea. Ez zen zuzena, nolabait, nahiz eta jakin sortu nuen bloga eguneratuta mantendu nahi nuela, eta umeen eskolen ardura nire gain zeudela.

Kostatu zitzaidan onartzea bizitza momentua dela, eta gauza zoragarri bat egiteko aukera badago, norberak erabaki behar duela zer egin,

eta, kontraesana badirudi ere, ikusi dut zer gutxirekin bizi daitekeen.

Hemen bizi garenek pribilegiatuak gara, eta ez dugu ezer egin horrelakorik merezi izateko, eta inportantea da niretzat umeek hori barnertzea.

#### **Teknologia erabili duzue?**

O: Umeak eskolarekin harremanetan izan dira interneti esker eta klaseko lagunekin hitz egin dute Skype

**OXEL | 10 URTE HAIZEA | 8 URTE**

#### **Joan aurretik inoiz ikusi ez, baina bidaian bai...**

H: Animaliak, Australian: ornitorrinkoa, wombata, koala, baina ez genituen ukitu.

O: 90 metroko zuhaitzak, Tasmanian.

#### **Zerk harritu zintuzten?**

H: Argentinako ur-jauziek; lurrun asko ateratzen zuten, handiak ziren eta zarata izugarria egiten zuten.

O: Buenos Aireseko miseriak, jende asko kalean lo egiten. Egunez eskaleak ikusten ziren.

#### **Zertaz hitz egin zenuten eskolakoekin?**

H: Zer gauzak ikusi genituen, zer egin, non geunden...

O: Galdetu ziguten kangururik ikusi genuen. Baietz esan nien, ni baino handiagoak, batzuk umea poltsan zutela.

#### **Hemengo zerbait faltan zenuten?**

H: Etxea eta txakurra. Aspergarria zen beti laurok elkarrekin egotea eta lagunekin egon nahi nuen.

O: Lagunak. Hasieran gustura, baina gero Aiara nahi nuen bueltatu.

#### **Jateko gauza berririk probatu zenuten?**

O: Llamaren haragia probatu nuen Argentinan, baina zaporea ez zitzaidan gustatu.

H: Niri bai! Eta Brasilgo mangoak gustatu zitzaizkidan.

#### **Zer nota emango zenioke amari irakasle lanagatik?**

H: Arraroa zen. Inoiz ez dugu berarekin egin eta!

O: Ona, 10etik 9. Baina guri 10etik bat!

#### **Lanaren bat prestatu zenuten eskolarako?**

O: Bi gai: Uluru (Ayer's Rock) eta Australiako animaliak.

H: Uluruko marrazki bat egin nuen eskolarako eta animaliena aitaren urtebetetzerako.

#### **Animalia gustukoena:**

H: Koala, Australian.

O: Ornitorrinkoa, Tasmanian eta tukana, Argentinan.

#### **Gustukoena: Australia, Argentina edo Brasil?**

H: Tasmania.

O: Tasmania, Uluru eta Sydney. Sydney hiri handia da eta ez dago kutsadurarik.

bidez. [www.etxeatze.com](http://www.etxeatze.com) blogean jasotzen nuen Australiako, lagunentzat eta guretzat gerorako, baina teknologiarekin batera, frustrazioak ere azaltzen dira, zerbait gaizki dabilenean!

Argentinara iritsi ginenean, gogoia galdu nuen, egitea zaildu egin zelako. Baina eskuz jarraitu nuen, eta egun batean zintzilikatuko dut.

#### **Berriro joango zinatekete?**

P: Ni, bai. Motz egin zitzaiz-

dan. Larunbat batean bueltatu ginen; igandean Txakolinaren Eguna zen Aian; astelehenean umeak eskolara joan ziren eta nilanean murgildu... berehala, urruti gelditu zen bidaia!

O: Ni etxezuloagoa naiz Peter baino, eta oso gustura hartu nuen etxerako buelta. Igande horretan ez nuen aterra nahi izan. Baina, bai, garbi dugu, gutxienez, Tasmanian bueltatuko garela, egunen batean.

## ADARRETATIK HELDUTA

*Alperrikako oihartzunak berriz*

**O**rain dela ia 15 urte izenburu berdintsua zuen artikulu bat idatziz nuen hemen bertan: *Alperrikako oihartzunak*. Minuta eta haserre nengoen orduan, Orioko hondartza aurrean *putomuroa* egiten ari zirelako, eta inork herri honetan ez zuelako ezer esan horma erraldoi horren kontra. Inork ere ez. Ahotsa zuten denak alde zeuden nonbait, Udalean behintzat.

*Putomuroa*, barra luzapenak, ibaiaren bestaldean alfer-alferrik egin zituzten hiru barrak, haiek batuz egin zuten *aireportua*, kirol portua, kanpina txikitu, hondartza ingurua etxez josi... 15.000 urte badira gizakiak inguru hauetan bizi garela (hori omen diote Altxerriko kobazuloko aztarnek), eta 15 urtetan betiko izorratu dugu hondartza ingurua.

Hori gutxi ez, eta porlanezko mamotreto bat egiten ari zaizkigu ibaiaren bestaldean... Nork eskatu du hori? Zertarako? Egia al da Udalak zerikusirik ez duela horrekin? Egia al da arrantzaleek ez dutela hara joan nahi?...

Eta Orioko Udaleko alderdi politikoko guztiei ondo iruditzen al zaie mamotreto hori?... Zeharo harrিতuta nago. Inork, ez alderdi politikoko batek, ez talde ekologista batek, ez herritar arrunt batek, inortxok ere ez du publikoki horren alde edo kontra hitz bakar bat ere esan. Eta Orioko eraikinik



IÑIGO FERNANDEZ  
PUBLIZISTA

**15.000 urte badira  
gizakiok inguru  
hauetan bizi  
garela eta 15  
urtetan betiko  
izorratu ditugu**

**Orioko Udaleko  
alderdi politikoko  
guztiei ondo  
iruditzen al zaie  
mamotreto hori?**

handiena da! Non eta turismoa bultzatu nahi den inguruan... Ederrak bistak, hondartzan, hango tabernetan, hotelean, kanpinean ibiliko garen guztiotzat...

Udalakez omen du eskumenik ibaiaren beste aldean. Baina nola liteke turismoa

bultzatu nahi duten lekuan porlankeria hori egingo digutela ikusi eta ezertxo ere ez egitea, ezer ez esatea... Alderdi politikoez ari naiz bereziki.

Gehitu horri *putomuroa* ke diola hondarrari ibaian gora sartzen uzten, eta lohia besterik ez dagoela ibai osoan. Eta Orioko hondartza hautsa dela, hautsa eta harria, kostalde osoko hondar kalitaterik eskasenetakoa duena. Eta batzuek, gainera, mugatua eta guztiona den hondarra egunero-egunero atera eta saltzen... Hor ere ez al du ezer egingo Udalak?

Oteizak esaten zuen gaixo dagoela estetikoki Euskal Herria. Berak Getarian bale bat iristen ikusten zuen lekuan, arratoi bat ihes egiten ikusi zuela herri honek. Estetikoki gaixo dagoen herri batek bakarrik onar dezake isilik hemen egiten ari direna. Oteizak gaur burua altxatuko balu... Orioko hondartzan, bere filosofiaren oinarria-hutsune babes emalea-aurkitu zuen leku horretan bertan, ez luke ez balerik, ez hutsunerik, ez hondar garbirik topatuko.

Herriko alderdi politikoko, helduko al diozue hondarraren gaiari serio mesez, faborez, arren? Ala 15 urte barru hondarrak gabe geratzen garenean beste artikulu bat idatziz beharko dugu hemen? Alperrikako oihartzunak izango al dira hauek berriz?

## NIRE HONETAN

Erretako  
ogia

**L**eku publikoetan erretzea galaraztea ez da hainbesterainoko arazoa izango. Eskozian debekua ezarri zenean, pubek zein kafetegiek ketutako dekorazioa kendu eta berritu ondoren, aste gutxietara ikusi zuten lehen baino jende gehiago ibiltzen zela, gustukoa baitute ke gabeko lekuetan denbora pasatzea, baita erretzaile direnek ere.

Hori buruan nuela, ogia erostera joan nintzen. Kafetegi-okindegian sartu bezain pronto, izugarri nuen ke usaina sumatu nuen. Momentu berean konturatu nintzen dirurik ez nuela aldean eta autoraino abiatu nintzen diru bila. Autoan sartu eta ke usaina *lagun* nuela sumatu nuen.

Ez nago erretzearen kontra. Erretzaile amorratu ohia naiz, eta oraindik gustatzen zait noizean behin erretzea. Baina leku hartan 30 segundo baizik pasa ez eta arropako kiratsa nahikoa zen nire buruari galdetzeko ea, janari dendetan debekatuta baldin badago erretzea, zergatik joaten naizen zeharo ketuta dagoen leku batera jango dudana ogiaren bila?

Aian eta Orion badaude tabakorik gabeko kafetegi-okindegi bana gutxienez. Gaurtik aurrera, nik, behintzat, halakoetan ketu gabeko ogia erosteko asmoa dut.

PAT COWIE

FISIOTERAPIA Gaitortze Akutuek eta Nekalderaren Widesporen  
NUTRIZIONISTA Gaitortze Akutuan

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO BAGASTI  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orrio (Gipuzkoa)



## MOILA BAZTERRETIK

## Amets on



GARBIÑE MATEROLA

**D**errepente ulertu dut zein izan ohi den batzuetan lorik hartu ezinaren arrazoia: zure ametsak ez daudela prest, oraindik.

Ludwig Hallek idatzitako apuntea omen goikoa, Har-

kaitz Cano idazlearen ahotik orain pare bat aste irratian aditua. Ikaragarri gustatu zitzaidan esaldia, hamaika irakurketarako atea ireki baitzidan.

Zenbat minutu behar ote dira amets bat prestatzeko? Ba al da amets motelik? Kirolarekin gertatzen den bezala, entrenatuz gero azkarrago lokartzeko aukerarik ba al da? Lo hartzen duten guztiek beren ametsak prest al dituzte? Di-da batean lo egitea lortzen dutenak ameslariagoak al dira? Lo hartu nahi ez dutenek beren ametsetatik ihes egin nahi al dute?

Zahartzerakoan loak bat hartzea gehiago kostatzen omen da. Beraz, urteak bete ahala amets gutxiago izango al ditut? Gure ametsak abandonatu gaituzten seinale al da esnatzea?

Esaldia entzun nuenetik ameslarien zelatari bihurtu naiz. Udaberri busti honetako denbora pasa polita aurkitu dut. Ametsen Gadget inspektorea bihurtu naiz eta ez dakizue zein ederra den jendearen ametssei buruz ipuinak asmatzea.

Ameslaririk kuriosoena noiz eta non topatu nuen jakin nahi?

Esaldia entzun eta egun bereborean topatu nuen, trenean. Aldamenean eseri nintzaion mutil gaztea lo gozotan zetorren. Balantza batean zuen burua, alde batera eta bestera, dantza ondo koordinatua. Usurbil pasa eta berehala kuriositatez begira jarri nintzen. Ez zen bada hasi lerdea dariola eta segidan giza-joa susto batean esnatu! Ez dakit treneko siesta azkar

**Ametsen Gadget inspektorea bihurtu naiz eta ez dakizue zein ederra den jendearen ametssei buruz ipuinak asmatzea**

**Ameslaririk kuriosoena Halleren esaldia entzun eta egun bereborean topatu nuen, trenean**

baterako lo gozogia ez ote zuen hark!

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel: 943 13 29 01 Magikitta 600 70 52 27

protektoria  
**MIRANDA**  
Iraia M. Larrauri  
tatuak, olo, lotio, eskaferra...  
bateratu erretze aparatua  
eguzko lurruntzua  
Udazkete bitxia. T. 9450 42 32 70 - ZARAUTZ

**Joseba Ostolaza TAXIA**  
24 ORDUKO ZERBITZUA  
Tf: 646 510 288  
Baxoalde, 9 ORIO

**islada**  
BESLEGIN ZARAUZ  
Sheila De Miguel - Saray Cendoya  
Solaren kalea, 2 bitxia Orio 20810  
Tf: 943 133 899  
e-maila: isladario@hotmail.com

**Orioko Herri Ikastola**  
Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**A&E**  
The Academy of English  
Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio  
Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

**jaletxea**  
logelak  
gazteategi  
Elkano auzoa  
943 13 16 06

**zkue**  
Tf: 943 13 04 38

**Orioko Ogia**

**ORIOGI**

OPILO OKINDEGIA  
Frontal andean  
Tfnua: 943 83 01 89

**LURDES**  
MATEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LOBETXU JATEKOA**

Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

Ille agundegia

**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - Injio  
Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

**Allianz**

**Marigre Zaldúa**  
aseguru agentea

Ibizi Ordo: 10 beha aino  
30 ofonua: 943 13 47 80  
bete: 943 83 57 52  
e-mail: zaldua.zalduezu@pajofiber.es

**ARDATA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

**Gabon**  
TABERNA

Plater karkara apurtxoak

Tfnua: 943 83 06 09

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Ara Lortxundi, 33 beheko - ORIO  
Autobus parada andean

Pinturak

**ELKAR**

pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa

Koordinatzaileak  
943 83 45 74/83 83 28 28  
ZARALTZ

**UTZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03

**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza onkorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnua: 943 83 59 00

**Nahikari**

HAIR BENDA

Ariandatz kalea, 35  
20100 - Ordo  
Tel. 943 83 34 30  
www.nahikari.es

**IZARRA BIDEA**

ALLENDETS OTO

INDESIT 305 €/hilabete

IEEA 315 €/hilabete

SAMSUNG 199,99 €/hilabete

Producto **RENOVE** TIEN 21

943 83 38 81

Eta etxetresna gehiago

**10 HILABETE INTERESIK GABE**





## Izeta-Iñarratarrak festetan

**B**eldarrain baserriko atarian atera zuen argazkia 1947-48an familia honek. Ezkerreko aldean, bi sagardo upel ageri dira eta atzean zelaia.

Justo Arruti sendagile ezagunaren lehengusu propioak, Enrike izeneko donostiarrak, atera zuen hiru belaunaldi jasotzen dituen fotoa. Festa giroan alai-alai zebiltzan, Santio Errekako festak zirela eta.

Goian ezkerretara,

eserita: Manuel Uranga; alboko neska koskorra, Maria Uranga; zutik, Antonio Arruti eta Pepita Izeta senar-emazteak, Inaxi Izeta eta Joxe Arruti senar-emazteak (bi anaia bi ahizpekin ezkontuta, eta bakoitzak bere familia eginda: 10 seme-alaba izan zituzten Joxek eta Inaxik eta bost Pepitak eta Antoniok); eserita dauden aitona-amonak, Jabier Izeta eta Maria Iñarra dira: Jabier 73

urterekin hil zen, Usurbilen eta 65ekin Maria, Aian; inguruko haurrak, Ramon Uranga, Angelita Arruti, Patxi Uranga eta, aitonaaren magalean jarrita, Ana Arregi. Argazkian ateratzeko gogo handirik gabe zegoen umea, berriz, Bixente Arruti da.

ARGAZKIA: ARTXIBOA  
INFORMAZIOA: PEPITA IZETA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erreturak  
Tel: uranga@euskalnet.net  
Telefon: 943 831236 Euzko Gudar, 5

**AHOLKULARITZA**  
Fiscalia, laborala, kontablea  
*Eugenio Garmendia*  
ASEGURU ARTEKARIA  
IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Igo zaitetz haize berrietara!  
**Galerria I**  
943890416 - 677149934  
galerria1orio@hotmail.com

## KRITIKA



Pello Añorga ipuin-kontalari oiartzuarrek adi-adi eduki zituen haurrak ordubeteko saioan.

KARKARA

## Ipuinez eta magiaz betetako maleta arina

**I**kasturtea bukatzen ari da eta, horrekin batera, liburutegian ere ipuin kontaketa jarduera amaitutzat eman dugu. Ekimen hau ikasturtean zehar egiten da, urrian hasi eta maiatza bitartean. 5 urtetik gorako umei zuzendutako saioak dira, baina haurrentzat bakarrik direnez, gurasoek ezin dute bertan egon. Hilean behin ipuin kontalari bat etortzen da eta aurreko astelehenean Pello Añorga oiartzuarra izan zen gurekin.

Pello Añorgak urte asko daramatza ipuinak konta-

tzen eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea ere bada. Horrez gain, idazle ospetsua da eta 2008an Euskadi Literatura saria irabazi zuen, haur eta gazte literatura atalean, *Genio gaiztoa* liburuarekin.

Ohi bezala, ipuinez eta magiaz betetako maleta zaharrarekin iritsi zen azken aldian ere liburutegira. Ordurako, haurrak zain zituen alfonbra gorriaren gainean eserita. Batzuek ezagutzen zuten, beste batzuek, aldiz, ez, baina denek arreta handiz begiratzen zioten hitz

egiten hasi zenean. Aurkezpen txiki bat egin ondoren, lehenengo ipuinarekin hasi zen. Ipuinak kontatzen zihorian heinean, ahots aldaketak, keinuak eta imintzioak erabiltzen zituen, haurren arreta ez galtzeko. Abestiak, olerkiak eta hitz jokoak ere tartekatu zituen eta saio borobila osatu zuen. Bukeraren, maletatik ateratako hauts magikoak bota zizkien haurrei eta hauek poz-pozik irten ziren liburutegitik.

MIREN ANDUEZA

## IKASLEAK IDAZLE

ANE MUJIKA |  
L.H.-KO 6. MAILA

## Tuenti edo messenger

**N**i orain dela hilabete batzuk Tuenti eta Messengerra erabiltzen hasi nintzen eta oso gustukoak ditut, baina konturatu naiz alde onak eta txarrak dituztela.

Hasteko, lagunak egiteko aproposa da; gerta daiteke gurasoak oporretara joatea eta beraiekin hitz egiteko egokia da.

Baina bere alde txarrak ere baditu. Gertatu izan zait pertsona batekin txateatzen hasi eta mehatxuka eta hitz itsusiez erantzun izana; asko ez dira ausartzen gauzak aurpegira esaten eta txata erabiltzen dute. Baita ere entzun izan dut gure adineko batzuk ezezagunekin gelditu direla toki batean elkar ezagutzeko eta horiek pertsona helduak zirela eta intentzio txarrekin zebiltzala. Beraz kontuz ibili txat, messenger eta horrelakoekin, ez dira txantxetako jolasak eta.

**HAIZE BERRI**  
Sabana-jakiteko kafeategia

Plater konbinatuak,  
bakatak,  
hamburgerak,  
razoak,  
ogoroko menuak...

ETA OTSOLA OFAHATOKO ZERBITZUAK

Eskanbidea, 16. 48101 BIZKAIA, Leioa, Gurea 100

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lanbideak: 09:00 - 19:00 eta 16:00 - 18:00  
Larunegia: 09:00 - 13:00  
Herriko Enparantza, Orrio

*Lizaso*  
dekorazioa

Eusko Gudari, 48  
Tf. 945 82 07 84 Fax: 945 82 07 10

**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORRIO  
Tel. 943 83 00 44



## OSPAKIZUNA



## LH-5eko ikasleak txapeldun

Maiatzaren 5ean Juan Mari Arruti eta Mari Karmen Lertxundiren urrezko ezteien eguna izan zen. Hala ere, egun batzuk geroago, hain zuzen maiatzaren 9an, ospatu zituzten. Bai ederki pasa ere. Orioko parrokian meza polita entzun, bikoteari eskainia, eta Katxiña jatetxera joan ziren bazkaltzera. Familia ere ondoan izan zuten, bat izan ezik: sumendiak eragindako lainoa dela eta, Ingalaterra aldean gelditu baitzen hegazkina ez zelako irten. Zorionak bikote!

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

Euskal Herriko kantu tradizionalak ezagutzea izan beharko luke musika ikasgaiaren helburua. Eta ez kantagintza modernoan dauden kantuak edo popularrenak bakarrik, kantutegiak ezagutu beharko lirerateke, han diren altxorak. Musika bidez, hizkuntza bera ere ikasiko genuke, hainbat euskalkitako kantuak ditugu-eta. Bi txori botako genituzke harri bakarraz. ... Oinarrian, ikastoletan-eta, musika ikasgaiak euskal kantutegi tradizionalaren ezagutza bermatu beharko luke”

**OLATZ SUGASTI** | Arpa jotzailea  
Argia aldizkaria; 2010/05/09

## ZORIONAK!

Idoia  
Etxeberriari

Arrauna eta futbola horren nabarmen nagusitzen diren herri batean herri-kirolaren aukera egiteak badu, berez, nahikoa meritua. Herri-kirola egiten dutenetatik, gainera, gutxi, oso gutxi, dira harria jasotzen duten emakumeak. Idoia Etxeberria ortzaikarrak, ordea, hori du gustuko eta jo eta ke dabil azkenaldian, Pello Saizar alboan duela, marka guztiak hautsi nahian. Azkena? Aiako Azentzio ferian: emakumezkoen Euskadiko harri-jasotzailerik onenaren txapela lortu zuen, 1.386 kilo altxa eta Miren Urkiola aurkariari aurrea hartuta. Bejondeizula!

**bodegasERRASTI, S. L.**



Eskualderako berrantzaraita  
Zudugarai, Getariako txakolina  
lagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur: Señorio de Laurgala  
Gallur eta Ardanategi.  
Arabar Errioxako ardnak

Eska Galarri, 46. CRID • 943 83 03 85 / 81 59 52 • E-posta: [botegeserrasti@cosia.net](mailto:botegeserrasti@cosia.net)

**iñaki argazkiak**  
**caperochipi**

*ezkontzako asmorik bai?*

[www.ikapero.com/ezkontzak](http://www.ikapero.com/ezkontzak)  
659378751  
[ikapero@ikapero.com](mailto:ikapero@ikapero.com)

**Joana Murgiondo**  
Asaguru-argentea

**ASEGIURUAK**



Abeslari. 4. 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**ARKAITZ**  
**Taberna**

Pintxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARIKALEA, 1 TEL: 943 83 16 57

**LEIHOLAN**

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

**Teléfono**  
Agente Inmobiliario  
Agente, S.  
28740 Zozoca

**Enkoderak**  
Área Leizola, 31,  
28910 Goya  
Tel: 942 66 48 36

ORAIN DELA 25 URTE

# Ardantza lehendakaria Aian izan zen erabakiak hartzen

Euskal Autonomia Erkidego-ko Gobernu Kontseilua, Jose Antonio Ardantza lehendakaria buru zutelarik, Aiako Laurgain parkean bildu zen lehenengo aldiz eta erabaki garrantzitsuak hartu zituen arlo ekonomikoan.

Bileraren ostean, Donostian egindako prentsaurrekoan, arlo ekonomikoko lehendakari orde Javier Garcia Egoxeagak eta industria gaietako aholkulari Jose Ignacio Arrietak, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile zen Eugenio Ibarzabalekin batera, euskal industria suspertzeko 30.000 milioi pezetako plana aurkeztu zuten.

## MAIATZAREN LEHENA

Sindikatuaren arteko tirabirek markatu zuten 1985eko maiatzaren lehena. Euskal Herrian, UGTk eta ELAk eguna barrutietan ospatzea erabaki bazuten ere, LABek kaleak hartu zituen. Orduko egunkariak diotenez, ezker sindikala izan zen lagun gehien mugiarazi zuen eragilea, batez ere LAB sindikatua, eta manifestaldietan independentziaren, amnistiaren eta ETA militarren aldeko oihuak izan baziren ere, batez ere, istilurik egon ez izana nabarmendu zuten.

## BATELAK

Maiatzaren 12an, Euskadiko Batel Txapelketa jokatu zen Eibarko Aixola zingiran, bai-

# 1985 MAIATZA

**Maiatzaren 1ean, istilurik egon ez izana nabarmendu zuten, egunkariak, batez ere**

**Euskadiko Batel Txapelketa zingira batean egitea oso kritikatu izan bazen ere, are kexa gehiago izan ziren sailkatze sistemagatik**

**Maiatzaren 14an afaria eta danborrada egin zuten Baleakoek**

na Oriok jubenilen ontzia bakarrik uretaratu zuen. Txapelketa zingira batean egitea oso kritikatu izan bazen ere, are kexa gehiago izan ziren

sailkatze sistemarengatik, denbora kontuan izan beharrean txanda bakoitzeko irabazleak pasatzen baitziren finalera. Orioko ontzia bigarren sailkatu zen bere kategorian, Santurtzirengandik 10 segundora.

## BALEAREN EGUNA

Balea elkarteak antolatuta, Balea Eguna ospatu zen Orion maiatzaren 14an. Arratsaldeko lauetan hasi zen haur eta gaztetxoentzat prestatutako festa, eta txistulariak eta buruhandiak kale ibili ziren txikien pozerako. Elkar-tearen ondoko plazan Kokotx eta Kirriki pailazoak izan ziren ondoren eta baita jokoak eta txokolate jana ere. Nagusiek, berriz, afaria egin zuten soziedadean eta gero danborrada jo zuten nahiz eta asteguna izan.

## EUSKARAREN EGUNA

Euskararentzako plangintza orokorra aldarrikatzeko Euskararen Eguna antolatu zuen, maiatzaren 3an, Euskararen Kultur Batzordeak.

Festarako aldarrikapenerako eta borrokarako deia egin zen eta Euskal Herri osoan oihartzun handia izan zuen. Egunkarietan azaltzen zutenez, Orioko inguruko herri gehienetan antolatu zen zer edo zer: Donostian, Usurbilen, Zarautzen, Getarian... baina ez da Orioko aipamenik egiten.

## JAIOTAKOAK

- June Duran Esnal, Orion, maiatzaren 12an.
- Iago Lertxundi Odriozola, Orion, maiatzaren 10ean.
- Aday Arnal Etxeberria, Orion, maiatzaren 10ean.
- Unax Arnal Etxeberria, Orion, maiatzaren 10ean.


## EZKONDUTAKOAK

- Xabier Azkue Isasti eta Miren Otazo Aseginolaza, Aian, maiatzaren 8an.

## HILDAKOAK

- Rafael Oneto Romero, Orion, maiatzaren 14an. 50 urte.
- Faustina Lertxundi Zuloaga, Orion, maiatzaren 14an. 90 urte.

Eskela edo urteurrenereko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



ardoak, urdaikiak, gaztak, kontsorbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

**KARKARA**

943 83 09 84

aita lertxundi, 36 ORIO

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finka administratzailea  
gestoria  
onprentza berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 29 40 25 - Fax: 943 63 54 66 - [itsasadarra@itsasadarra.com](mailto:itsasadarra@itsasadarra.com)  
Itzi: C/ndo 4, behea, 20210 Orreaga



AURÉLIE LOUINEAU | GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEKO KIDEA

# “Gustura nago Luxarben, nire lekua aurkitu dut eta”

Frantziako Les Sables d’Olonne herrian duela 26 urte jaioa, Katalunian udaberri batzuk egin eta Oriora etorri da bizitzera Aurélie Louineau. Goiko Kaleko Festa Batzordeko kide da, eta Artisautza Azokan harrapatu dugu, kamisetak margotzen.

## Ezagutu zaitzagun, Aurelie. Nola iritsi zara gurera?

Ikastera etorri nintzen Euskal Herrira orain dela urte eta erdi inguru. Lehen sei hilabeteak Bilbon egin nituen, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Zientzietako fakultatean aritu bainintzen ikasten. Handik Donostiara joan nintzen, Antropologia Feministan espezializatzen.

Iazko irailean etorri nintzen Oriora bizitzera. Jaione Arrillagak eta biok ezagutzen dugun lagun baten bitartez jakin nuen bazela Orion neska bat baserrian bizitzeko adiskide baten bila zebilena. Betidanik nahi izan dut baserrian bizi.

## Ezagutzen ez zenuen herri batetara etorri al zinen?

Bizpahiru aldiz pasako nintzen, agian, Oriotik, baina ez nuen ezagutzen ez herria ezta jendea ere. Neukana lepoan hartu, eta hemen nago.

## Zer moduz gure artean?

Primeran, ezin hobeto. Ikargarri gustura nago. Benta alboan, Luxarben, bizi gara Jaione, Ane eta hirurok.

## Herriangizarteratuta ikusten zaitut.

Jaioneren lagunak irekiak eta gogotsuak dira eta oso gustura sentitzen naiz beren artean. Gainera, hemengo kultura eta hizkuntza ikasi nahian nabil, bertakotzeko, herria-



Aurélie Artisautza Azokan, haur bati kamiseta margotzen laguntzen.

KARKARA

**Bertako kultura eta hizkuntza ikasi nahian nabil, bertakotzeko, ahal dudan eran, herriaren bizitzara egokitze**

ren bizitzara egokitze, ahal dudan jarduera guztietan parte hartuz.

## Erraza egiten ari al zaizu euskara?

Ez, berea kostata ari naiz; pixkanaka –euskaraz dio–. Zail samarra zait. Katalana bihila-

**Ez dut nahi albokoek, lagunek, nigatik, erdaraz hitz egitea; behartu egiten ditudala badakit**

betetan ikasi nuen, baina ez euskara.

Udalak antolatutako AEK-ko ikastaroan nabil, Orion bertan. Astean sei orduz aritzen naiz hizkuntza ikasten. Etxean ere lehenengo hitzak euskaraz egiten ditugu beti; nire buruak jasan dezakeen

arte, behintzat. Hitz sueltoak eta egiturak hartzen ari naiz. Ikasteko gogoz nago eta ezer baino gehiago, norberaren interes kontua dela uste dut.

Albokoak baldintzatzen ditudala ere badakit, eta ez dut egoera hori luzatzerik nahi; ez dut nahi haiek, nigatik, erdaraz hitz egin behar izatea. Nire inguruan euskara da hitz egiten den hizkuntza bakarra. Jende ezberdina ezagutzen da, gainera, hitz egiten duzun hizkuntzaren arabera.

## Zertan zabilta orain?

Bestelako ikasketak egiten ari naiz orain eta bitxiak eta eskulturak sortzen ere aritzen naiz, artisautza lanetan.

## Talde egokia aurkitu duzu hortaz, Artisautza Azokan parte hartzeko aukera eman dizu eta.

Bai. Alderdi komertziala albo batera utzi eta imajinazioa eta sormena lantzeko aukera ematea garrantzitsua iruditu zitzaidan hasiera batetik eta animatuta, lehenengo aldiz hartu dut parte azoka batean. Ezagutzen ez dudan jendearekin egoteko aukera aparta izan da. Eguna iritsi aurretiko prozesua ere atsegina izan da: bileretan parte hartu, tailerraren nondik norakoak zehaztu, materiala erosi edota eskatu –herriko dendariak eman dizkigute brotxeak egiteko tela zatiak...

## Gure artean geratzeko asmoa al duzu?

Bai, oraingoz. Nire lekua aurkitu dut eta ez daukat beste inora joateko asmorik. Hala ere, ez dakit bihar zer pasako zaidan burutik.

Nora joan nahi dudan erabakitze askatasuna izan nahiko nuke aurrerantzean ere.

**TREN ORDUTEGIAK**

**DONOSTIA - ZARAUTZ**

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:11</b>	<b>06:41</b>	<b>07:11</b>	<b>07:41</b>	<b>08:11</b>	<b>08:41</b>	<b>09:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>
Zarauztz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarauztz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

**ZARAUZT - DONOSTIA**

Zarauztz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:15</b>	<b>06:45</b>	<b>07:15</b>	<b>07:45</b>	<b>08:15</b>	<b>08:45</b>	<b>09:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarauztz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com)

**AUTOBUS ORDUTEGIAK**

**LANEGUNETAN**

Donostia	Orio	Zarauztz	Zarauztz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:00
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25	10:30	10:30	11:00
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:00
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:00
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:00
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:00
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:00
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

**ASTEBURUETAN**

Donostia	Orio	Zarauztz	Zarauztz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

**OHARRA:** lanegunetan koartxo erdian ordutako autobusak Urtetik pasatzen dira. Asteburuetan, beriz, gutxiak pasatzen dira. Koartxo funetako ordutegi larriak (laneguna) zerbitzari bakarrak dagozko.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

[www.landabus.com](http://www.landabus.com)      Tel. 943 24 01 14      sms-a 6280 zerbakia

**ITSASOA**

ILEA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
21	10:41 eta 23:08	04:40 eta 16:58	☀
22	12:11 eta _____	06:05 eta 18:31	☀
23	00:42 eta 13:35	07:05 eta 19:53	☀
24	02:03 eta 14:41	08:20 eta 20:56	☀
25	03:05 eta 15:34	09:18 eta 21:46	☀
26	03:55 eta 16:19	10:06 eta 22:30	☀
27	04:40 eta 16:59	10:49 eta 23:09	☀
28	05:20 eta 17:36	11:29 eta 23:46	☀
29	05:58 eta 18:11	12:06 eta _____	☀
30	06:34 eta 18:45	00:21 eta 12:42	☀
31	07:10 eta 19:17	00:55 eta 13:16	☀
01	07:45 eta 19:49	01:29 eta 13:20	☀
02	08:21 eta 20:22	02:02 eta 13:55	☀
03	09:01 eta 21:01	02:38 eta 14:25	☀
04	09:51 eta 21:52	03:21 eta 15:27	☀

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**MAIATZA / EKAINA**

- 21ean, Lasa.
- 22an eta 23an, Mutiozabal.
- 24an, Larrañaga.
- 25ean, Etxeberria.
- 26an, G. Artiñano.
- 27an, Mutiozabal.
- 28an, Zulaika.
- 29an eta 30ean, Iriarte.
- 31an, Etxeberria.
- 1ean, G. Artiñano.
- 2an, Azaldegia.
- 3an, Zulaika.
- 4an, Iriarte.
- 5ean eta 6an, Larrañaga.
- 7an, G. Artiñano

**Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8  
943 13 31 83 Zarauztz

**Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17  
943 83 23 98 Zarauztz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12  
943 83 29 70 Zarauztz

**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16  
943 13 38 14 Zarauztz

**Lasa:** Herriko Plaza  
943 83 09 36 Orio

**G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17  
943 13 40 19 Zarauztz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea  
943 13 29 83 Zarauztz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41  
943 13 39 94 Zarauztz



**MANDALARA ASTEA**

- Maiatzaren 28tik ekainaren 4a arte, Mandalara elkarteak antolatuta, Mandala erakusketa. Goiz eta arratsalde, Orioko kultur etxean.
- Maiatzaren 29an, *Vida después de la vida* hitzaldia. Hizlaria: Mikel Lizarralde mediuma. Sarrera: 5 euro; Donostiako K'an Li denda eta Orioko kultur etxean salgai. 18:00etan, Orioko Herri Ikastolako aretoan.
- Ekainaren 1ean, *El Tarot* hitzaldia. Hizlaria: Agustina Herrero tarot irakaslea. 19:00etan, Orioko kultur etxean.
- Ekainaren 2an, Mandala tailerra Karmele Garmendiarekin. 18:00etan, Orioko kultur etxean.
- Ekainaren 4an, Erdi Aroko musika egiten duen AHAVA taldearen kontzertua. 19:00etan, Orioko kultur etxean.

**SANPEDROAK**

- Orion, maiatzaren 24an, aurtengo sanpedroak antolatzeko hirugarren bilera. 19:00etan, kultur etxean.

**AFARIAK**

- Orion, ekainaren 5ean, 1943. urtean jaiotako bazkaria. 14:00etan, Xixario

**Mendi irteerak**

Moilarrira goiz-buelta antolatu du Orioko Herri Ikastolak maiatzaren 23rako. 09:00etan aterako dira ikastola aurretik. Moilarrin geldialdia egin eta Zarauzko hondartzara jaitsiko dira. DBHkoentzat ere irteera antolatu dute egun bererako eta Ernioko kobazuloak ikustera joango dira. 08:30ean da irteera eta linterna eta arropa zaharrak eraman behar dira.

erretegi. Izena ematea: ekainaren 1a baino lehen 943 83 26 66 telefono zenbakian (Fernando).  
 ■ Orion, 1953. urtean jaiotako afaria. Prezioa: 45 euro. 21:00etan, Balea hotelean. Izena ematea: maiatzaren 24a baino lehen

kutxako 2101 0176 99 0011405057 zenbakian dirua sartuta. Informazio gehiago 627 417 844 zenbakian (Xanti).  
 ■ Orion, maiatzaren 29an, 1960. urtean jaiotako afaria. Galerna jatetxean. Izena ematea: Arkaitz edo

Salatxo tabernetan, maiatzaren 25a baino lehen.  
 ■ Orion, ekainaren 5ean, 1966. urtean jaiotako afaria. Izena ematea: Goizeko kafetegian, ekainaren 2a baino lehen.

**ERROMERIA**

- Aian, maiatzaren 23an, erromeria Astiazaran anaiak eta Leire trikitilariekin. 18:30etik 21:30era, Aristerrazuko plazan.
- Aian, maiatzaren 30ean, erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin. 18:30etik 21:30era, Aristerrazuko plazan.

**SILO-BOLAK**

- Aian, ekainaren 8an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 643 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

**TRASTE ZAHARRAK**

- Orion, maiatzaren 26an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien alboan.

**TAILERRA**

- Orion, ekainaren 12an, Adierazpen Erradikaleko tailerra. Informazio gehiago: Joxe Mari: 600 633 785 zenbakian. 14:00etatik 16:00etara eta 20:30etik 22:30era, kultur etxean.

**AZOKA****Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

**SALGAI**

- Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 900 423.
- Etxea salgai Goikokalen, 150.000 eurotan. Tf: 657701911.
- Bigarren eskuko altzariak

salgai, egoera onean. Tf: 610 81 80 79.

- Etxea salgai Eusko Gudarain. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

**LAN BILA**

- Neska gazte eta arduratsuak haurrak udan zaintzeko: Tf: 658 22 55 62.
- Edadetuak zainduko nituzke. Eskarmentua badut eta erreferentziak ere bai. Tf: 617 71 54 39.

**ETXE BILA**

- Orion alokatzeko pisu bila dabil neska oriotarra. 676 44 13 27 (Ghariba).

- Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo 943 83 15 18 (lan orduetan).

**OPARI**

- Txakurkume politik ditugu oparitzeko. Bost hilabete pasatxo dituzte. Deitu lasai 615 71 40 85 telefono zenbakira, baten bat etxera eraman nahi izanez gero.

**GALDUTAKOAK**

- Apirilaren azken asteetan semearen lau gurgpileko bizikleta berdea desagertu zitzaigun ikastola paretik. Izenak jarrita ditu: Ander

eta Txomin. Norbaitek hartu badu, dei dezala, mesedez, 667 09 23 96 telefono zenbakira eta Iratxegatik galdetu.

- Moldura urdineko betaurrekoak galdu ditu baten batek Aian. Ume batenak dirudite. Kultur etxean daude jabeak noiz jasoko zain.
- Graduatuak betaurrekoak agertu ziren apirilaren erdi aldera Itsasadarra aholkularitza bulegoaren aurrean. Moldura finekoak eta more eta gorri kolorekoak dira. Itsasadarraren bulegoan bertan daude.

# BIYONA

**berrikuntzak**



**Igeltseritza  
Arotzeria  
Gremioen koordinazioa  
Etxeko altzariak**



**Sukaldeko altzariak  
Bainugelak-zeramika  
Gasa-berogailuak  
Aire girotua**



**Maiatzaren 28tik aurrera, denda berria Zarautzen**

**Abendaño, 2; 20800 Zarautz ; Tf: 943 13 50 16**

Santiago auzoa, 12  
20750 Zumaia  
Tf: 943 14 34 43

Axiri oraikuntza, 16  
20720 Azkoitia  
Tf: 943 85 21 10

Gesalaga kalea, 18  
20740 Zestoa  
Tf: 943 14 82 41